




## Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko




<b>adeitsu</b> begirunez, errespetuz	«Eta han ikusi nuen gizon irribarre triste <b>adeitsu</b> hura, gabardina, gorra ingelesa eta eskularru beltzak jantzita...»	8
<b>adur</b> indar ezkutua	«— Irulegiko arno xuri hau berezia duzue: upan sei hilabete eman izanak <b>adur</b> berezia, amini bat azkarragoa erantsi dio...»	89
<b>ahitu</b> agortu, amaitu	«Indarrak <b>ahituz</b> doazkie.»	19
<b>ahoa bete hagin</b> harriturik	«Julen <b>ahoa bete hagin</b> utzi zuen bat-bateko agurrarekin.»	44
<b>aiduru</b> zain	«— Badakit, Urbieta jauna. Zure <b>aiduru</b> gira. Arnaga jauna barnean duzu, sartzen ahal zara, plazer baduzu.»	85
<b>aieneka</b> kexuka, intzirika	«Intziri moduko bat zen, norbait eskaileran <b>aieneka</b> balego bezala.»	66
<b>aihenbelar</b> landare igokaria	«...etxaurreak era soil baina atseginez apaindurik zeuden: loreak, <b>aihenbelarrak</b> eta laborantzako tresna zaharren bat edo beste.»	79
<b>aitzina</b> aurrera	«— Ontsa da. Segi <b>aitzina</b> , otoi —bukatu zuen solasa Gilenek, ate nagusia erakutsiz.»	86
<b>akituta</b> nekatuta	«...jazartzaileak ia ganean dituzte eta eurak, berriz, <b>akituta</b> daude, istripuko kolpeek minberatuta, izerditan blai, egarriak itota.»	18
<b>akuilatu</b> zirikatu, bultzatu	«Orduan, susmo makabro batek <b>akuilaturik</b> , arrapataka paketea irekitzeari ekin dio.»	23
<b>albate</b> alboko atea	«Gizon hori sartu baldin bada, zuk diozun moduan eta Gilenekin bazetorren, ba haren laguna izango da eta <b>albatetik</b> irtengo zen...»	115
<b>aldarri</b> eskaera-oihua	«...lagunaren <b>aldarriari</b> entzungor eginda, igitaia gogor eutsita ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari...»	20
<b>aldarte</b> umorea	«...zer ote dago Gilenen iraganaren gaiak mintzatzen natzaionean ezkuta ezin ditzakeen <b>aldarte</b> aldaketa eta zurztasun horien ostean?»	100
<b>alu</b> baboa, ergela...	«“Zer egin ote du zoro <b>alu</b> horrek? Motxila autoaren aurrealdera jaurti edo zer...?”»	12
<b>amini bat</b> pixka bat	«Irulegiko arno xuri hau berezia duzue: upan sei hilabete eman izanak <b>adur</b> berezia, amini bat azkarragoa erantsi dio...»	89
<b>amoltsu</b> maitakor	«Arantxa oso <b>amoltsu</b> zetorren eta ohera sartzeaz batera, Julen besarkatu eta musukatzen hasi zen.»	58
<b>apatz-apatz</b> bigun-bigun	«— Nola joan da eguna, maitea? —galdetu zion Arantxak gizonaren ondoan sutondoko sofan <b>apatz-apatz</b> jesarri zenean.»	46
<b>apika</b> agian, akaso	«...zerbait bitxia, agian izugarria ezkututzen zela leiho argidun haien osteko bizitza egunerokoan, baita iragan trumoitsu bat ere, <b>apika</b> ...»	33
<b>aratinik</b> ahoz gora etzanda	«Azkenburukoaren itxura, aurkezpena... ikuste hutsa <b>aratinik</b> jausteko modukoa izan zen...»	94
<b>aratz</b> garbia, txukuna	«Lanabesak, zakuak, ontziak eta tresna oro ondo antolaturik zeuden, esku <b>aratz</b> baten lana agerian uzten zutela.»	84
<b>aratz</b> garbia	«Eta, ba, lanean <b>aratz</b> eta maratza bazen eta denak pozik bazituen ere, gau-irtenaldietan ospe txarra hedatzen hasi zen...»	119
<b>aratz</b> garbia	«Eta, ba, lanean <b>aratz</b> eta maratza bazen eta denak pozik bazituen ere, gau-irtenaldietan ospe txarra hedatzen hasi zen...»	119
<b>ardi</b> arkakakusoa, parasito mota bat	«— Bai, bizkarroien mendean, hain zuzen. Nik txikitan ez dut jakin zer diren zorriak, kaparrak edota <b>ardiak</b> ...»	31
<b>arno</b> ardoa	«— Arnoa da, jauna, <b>arnoak</b> burtzoratu egiten du gizasemea, ez delarik bere buruaren jabe eta...»	104
<b>arra</b> eskuaren neurria	«...haizeak ekarritako lur sokiltxoetan sustraiak eginak zituzten landare ugari <b>arra</b> bi gora egiten zuten...»	29



<b>arrapataka</b> lasterka, presaka	«Orduan, susmo makabro batek akuilaturik, <b>arrapataka</b> paketea irekitzeari ekin dio.»	23
<b>artatu</b> gaixoak zaindu, jagon	«...gidariak anbulantziara deitu du eta odolustu baino lehen <b>artatu</b> ahal izan dute auto-stoplari ausarta.»	13
<b>artegatasun</b> urduritasun	«...istorioa laburturik edo, hobeto esanda, zentsuratik pasatua kontatu zionean, Arantxak <b>artegatasun</b> pittin batekin esan zion...»	49
<b>asaldura</b> nahasmendua, aztoramena	«Kristaleria zaharreko edalontzi ipurdi zabal batean isuri zion edaria artean <b>asaldura</b> kendu barik zegoen gonbidatuari.»	72
<b>astapotro</b> astakeriak egiten dituen	«Hil zena beste <b>astapotro</b> bat omen zen, Gilenek besteko errua zuena...»	120
<b>astrapala</b> zarata handia, harrabotsa	«Halako batean erabaki nuen, kopa ondo bete ondoren, erretzea bekatu ez zen bazter lasai batera lerratzea, eta <b>astrapalatik</b> urrun.»	8
<b>at</b> kanpo	«Bere emazte Arantxak ere Bilbotik <b>at</b> zeukan lantokia...»	27
<b>atalase</b> sarrerako eskailera-maila	«...gizonak atea zabaldu eta kaleko mutiko bat azaldu da <b>atalasean</b> , paketetxo bat besapean...»	22
<b>ataza</b> eginkizuna	« <b>Atazak</b> bazkalordurako amaituta, otordua Ezpelondon egin zuelarik, une hartan ostera labor bat egiten ziharduen...»	79
<b>atondu</b> prestatu	«—Tori pattar pixka bat gehiago. Honekin hartzak legez egingo duzu lo. Gilenek logela <b>atondu</b> dizu goian.»	98
<b>azkenburuko</b> postrea	«—Badakit zer pentsatzen duzun, laguntxo, baina itxaron, itxaron ezazu afaria <b>azkenburukoraino</b> iritsi arte, eta gero esango didazu!»	91
<b>baldar</b> moldagaitza, dorpea	«Gilenen ibilera gero eta <b>baldarragoa</b> zen, bideak betean mugitzen zen karrika estuetan, hemen estropezu, han balantza.»	109
<b>barre-algara</b> algara, poz-algara	«Edalontzi-hotsa, <b>barre-algara</b> zaratzatuak eta astunak, eta nesken barre txikiak, eta Hank Williams.»	61
<b>behargin</b> langilea	« <b>Beharginak</b> onik irten ziren, sasoiz heldu ziren atzealdeko atera...»	38
<b>beharreztan</b> ezbeharra, aberia	«Ez gara umekondoak suarekin <b>beharreztanen</b> bat egiten ibiltzeko.»	44
<b>behin-behineko</b> momentuz	«—Bai —etsi zuen <b>behin-behineko</b> Franek, laguna zerbait deseroso sumatuta...»	99
<b>berbots</b> hitz-hotsa	«Halako batean erabaki nuen, kopa ondo bete ondoren, erretzea bekatu ez zen bazter lasai batera lerratzea, <b>berbotsetik</b> eta astrapalatik urrun.»	8
<b>bete-beteko</b> erabatekoa	«...sudur kakoak, okots sartuak eta begi txikiak halako euskaldun peto-petoa marrazten zuten, <b>bete-beteko</b> .»	85
<b>betertzez</b> begi ertzetik, albotik	«Gizon lodikoteak, tabernariari <b>betertzez</b> begiratuta, eskuaz zeinu bat egin zion...»	37
<b>bide</b> dirudienez	«...baso aldera edo, behinik behin, hain urbanizatua ez zegoen eremu batera <b>bide</b> zihoan estrata.»	80
<b>bideak betean</b> alde batetik bestera	«Gilenen ibilera gero eta baldarragoa zen, <b>bideak betean</b> mugitzen zen karrika estuetan, hemen estropezu, han balantza.»	109
<b>biharamun</b> hurrengo eguna	« <b>Biharamun</b> goizean, ohi zuen bezala, Julen goizetik jaiki zen, sua piztu eta, Arantxarekin gosaldutik ondoren, tipi-tapa oinez abiatu zen lantokirantz.»	34
<b>biziki</b> oso, guztiz	«— <i>Jurançon</i> hau <b>biziki</b> ona duzue, ahate giblez betetako barazki mokaduekin ontsa doana...»	89
<b>bizitu</b> biziago bihurtu, sustatu	«Etxera hiru eta erdiak aldean itzultzen zen; sua <b>bizitzen</b> zuen, bazkari arina jan eta lokuluxka bat egin ohi zuen...»	28
<b>bizkarroi</b> parasittoa	«—Bai, <b>bizkarroien</b> mendean, hain zuzen. Nik txikitzen ez dut jakin zer diren zorriak, kaparrak edota ardiak...»	31




<b>burtzoratu</b> burua galdu, zorabiatu	«Arnoa da, jauna, arnoak <b>burtzoratu</b> egiten du gizasemea, ez delarik bere buruaren jabe eta...»	104
<b>deitoragarri</b> negargarria	«Ba, Ibaietako taberna zulorik <b>deitoragarri</b> etan, ospe txarreko etxeetan ibiltzen omen da, eta ez nolnahi gainera.»	103
<b>dindiliz</b> zintzilik	«...ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari, jo-ta beso zati zarrastatu eta odoltsu bat eskuburdinatik <b>dindiliz</b> utzi arte...»	20
<b>diosala egin</b> agurtu	«...eskua sonbreirura eraman zuen dotoreziaz, hegala doi-doi ikutuz, eta euskaraz <b>diosala egin</b> zion...»	80
<b>dirau</b> irauten du	«...alabaina, harri mordoaren azpian biak lotzen dituen eskuburdinak tinko <b>dirau</b> ...»	19
<b>diz-diz</b> distiratuz, argi izpiak sortuz	«Nire begiradari eutsiz, gorraren hegalpean bi begi <b>diz-diz</b> antzeman zitezkeen...»	11
<b>egurastu</b> airea berritu	«Gure etxea ere hezea da oso, baina beheko sua piztuz eta eguerdian, edo giro sikua denean, <b>egurastuz</b> gero...»	31
<b>ekandu</b> ohitura	«—Barkatu mahaiburuan jartzen banaiz, baina nire ohiko lekua da eta, dakizunez, <b>ekanduei</b> oso atxikia nauzu.»	92
<b>elezahar</b> leienda	«—Ezagutzen dut hizpidera ekarri duzun <b>elezaharra</b> , noski...»	91
<b>entzungor egin</b> ez entzunarena egin	«...lagunaren aldarriari <b>entzungor eginda</b> , igitaiari gogor eutsita ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari...»	20
<b>erauntsi</b> ekaitza, erasoa	«Zutoinak amore eman du: harri eta hauts <b>erauntsia</b> gainera etorri bazaie ere, bidea itxirik, moztuta gelditu da...!»	19
<b>erdietsi</b> lortu	«Bi preso horiek, eskuburdinarekin bikiak legez elkarri lotuta, ustegabeko askatasuna <b>erdietsi</b> dute...»	16
<b>erreka-ibi</b> uraren sakontasun txikiko gunea	«Beraz, hiri aldera jo dute, trinkili-trankala, errepide-estratak saihestuta, bidezidorretatik eta inoiz <b>erreka-ibietatik</b> ibiliz.»	17
<b>erretilu</b> plater handia	«...ate ondoan <b>erretilu</b> handi bat eskuan zegoen sukaldariari eskuaz keinu egin zion, jaki-edariak zerbitza zitzan.»	89
<b>errime</b> sendoa	«Gosari <b>errime</b> a bezain gozoa atondua bazeukan ere, ez zuen batere luzatu nahi izan.»	102
<b>esne bitsetan</b> erabat zoriontsu	«—Hasieran oso ondo joan zen dena. <b>Esne bitsetan</b> bizi ginen.»	121
<b>estekaturik</b> loturik	«...ezin askatuzko lokarria da eskuburdina: altzairu sendozkoa da eta tinko <b>estekaturik</b> daramate eskumuturretan...»	17
<b>estolda-bide</b> lurpeko kanala	«Estalki metaliko handi bat, segurutik <b>estolda-bide</b> bateko sarrera.»	18
<b>etxekalte</b> etxe-giroaren hondatzailea	«—Hara, inudeak etxera dakar mutil <b>etxekalte</b> !»	111
<b>ez bat eta ez bi</b> halako batean, ustekabea	«Eta, <b>ez bat eta ez bi</b> , bide bazterretik irtenda errepideko erreian bertan jartzen da besoa aterata...»	12
<b>ezain</b> itsusia	«...andre ximela bere itsusitasun guztiarekin begietsi ahal izan zuen, hark jaurtitzen zuen [...] garrasi latzak aurpegiaren imintzio <b>ezaina</b> areagotuz.»	68
<b>ezkaratz</b> etxe-sarrerako gela	«Izan ere, ate zaharra irekitzen hasita zegoen eta handik lasterrera silueta luze-luze bat agertu zen <b>ezkaratzeko</b> ilunbean.»	32
<b>ezpabere</b> bestela, osterantzean	«Jo zeuk aurretik, bidea dakizun horrek, <b>ezpabere</b> bernazurra apurtu behar dut zer edo zeren kontra.»	63
<b>eztitan</b> pozarren	«Fran <b>eztitan</b> zegoen. Hain kitzikaturik sentitzen zen Gilenen alderdi iluna bertatik bertara jarraitu ahal izango zuela pentsaturik...»	108
<b>fir-fir</b> hosto-hotsa	«Gau ilun-iluna egiten zuen. Haizeak boladaka jotzen zuen, zuhaitzetako hostoei <b>fir-fir</b> etengabea eraginez.»	61



<b>galapan</b> arrapaladan	«Julenek ere, izuz beterik, garrasi egin zuen indar guztiarekin, orain argizaturik zegoen eskaileratik behera <b>galapan</b> jaisten zela.»	68
<b>gogaitu</b> aspertu	«—Julen: auzi honekin apur bat <b>gogaitzen</b> hasita nago, entzun?»	49
<b>gogobete</b> asebete, konbentzitu	«Etxebizitza bila hasi zirenetik hilabetera, baina, herriaren inguruko muino batean kokaturik, <b>gogobete</b> zituen etxe bat erakutsi zieten.»	27
<b>goiera</b> altuera	«Ahots irmo, hotz baina eder haren jabea gizaseme bizkarzabal <b>goiera</b> ertaineko bat zen.»	85
<b>gomuta</b> gogoa, oroimena	«Ordu erditxo bat-edo eman zuten etxea ikusten, erakusten, tarteka iragan denboretako kontuak <b>gomutara</b> ekartzen zituztela.»	87
<b>gorazarre</b> norbait goraiatzeko ekintza	«...hain koipe gutxi zeukan denak, digestioaren mesedetan eta zapore puruen <b>gorazarrez...</b> »	94
<b>gotor</b> sendoa, irmoa	«Handik ordu laurdenera Etxenagusia bistaratu zuen, iluna eta <b>gotorra</b> , mendea joan mendea etorri oihanak inguratu duen gaztelu baten gisa.»	42
<b>gotortasun</b> irmotasuna	«...igitai zorrotz-zorrotz bat, arma moduan bai, baina eskuburdinak askatzeko besteko <b>gotortasunik</b> inondik ere ez daukana.»	18
<b>gurari</b> nahia, apeta	«...laguna ezagutu zuenetik beti dirudun eta <b>gurari</b> guztiak asezi bizi izan baitzen, berezi-bereziki ondo jatearen eta janztearen ingurukoak.»	84
<b>gurbitz</b> zuhaixa mota bat	«Gurbitz asko egoten zen bertan eta guk egur hori, <b>gurbitzarena</b> , tiragomen urkuluak egiteko erabiltzen genuen.»	37
<b>gutizia</b> gurari, apeta	«Sukaldari-zerbitzariak erretilu bete <b>gutizia</b> zekarren, mokadu txiki-txikietan emanak.»	89
<b>haboro</b> gehiago	«...gorputz <b>haboro</b> du <i>Sauterns</i> honek, halaber laguntza ona egin dezakeena...»	89
<b>hara-honako</b> ostera, joan-etorria	«Uda amaierako arratsalde epel hartan Fran Urbieta <b>hara-honako</b> bat egiten zebilen, eguneko lana amaitu ondoren.»	79
<b>hartara</b> modu hartan	«...barreari eman nion neuk ere, miretsita gizonak (...) zelan jakin zuen niri ere <b>hartara</b> ziria sartzen...»	24
<b>hazpegiak</b> aurpegi soslaia, ezaugarriak	«...bekaina erdibitzerraino zeharkatzen zuen orbain sakona zuen, bestela zorrotzak baina ederrak ziratekeen <b>hazpegi</b> en oreka erabat hausten zuena.»	85
<b>herabeti</b> lotsatia	«Aurkezteko eskatu nien eta orduantxe ezagutu nuen gure mutil <b>herabeti</b> , zurrun, hizkera dotoreko, misterioitsu samarra.»	118
<b>hits</b> goibela, tristea	«—Niretzat asteko egunik... —nola esango nuke?— txiroenak, <b>hitsenak</b> dira. Baina... pasatu egin behar!»	96
<b>hitz beste egin</b> mintzagaia aldatu	«... erantzun zuen Julenek, sorbaldak jasoz. Gero, <b>hitz beste egin</b> zuen...»	35
<b>hozkirri</b> hotz samarra, freskoa	«Aterpean taberna-kafetegi horietako bat zegoen eta, urriko giroa <b>hozkirria</b> bazen ere...»	107
<b>hozkirritu</b> hotzikaratu, beldurtu	«“Non sartu naiz?”, <b>hozkirritu</b> zen Julen.»	64
<b>iaio</b> trebea	«—Tira, tira, Beñat, ulertu didazu. Horrelako zirtoak harrapatzen <b>iaioa</b> izan zara beti!»	98
<b>igitai</b> gako-formako lanabesa	«Ez dute, baina, eskuburdina arrakastaz ebakitzeko moduko tresnarik aurkitu; bai, ordea, <b>igitai</b> zorrotz-zorrotz bat...»	18
<b>ihar</b> guztiz lehorra	«...eta bere beso <b>iharra</b> ikusi du, zeina lagunak, une haren zain, urteetan disekaturik atxiki duena!»	23
<b>ilinti</b> egur-zati erdi errea	«—Esango al zenidake zertzuk diren botilen barruko labezomorro moduko horiek? — <b>Ilintiak</b> , jauna, ikatz puskak.»	86
<b>iltzez eta giltzez</b> ondo itxita	«...ate-leihoak eta bai pertsianak ere <b>iltzez eta giltzez</b> itxita ageri ziren.»	29



<b>inarrosi</b> astindu, jipoitu	«Aldatu da eguraldia. Berriz ere iparra sentitu beharko dugu leiho zaharrok <b>inarrosten</b> .»	55
<b>intziri</b> oinazezko oihua	« <b>Intziri</b> moduko bat zen, norbait eskaileran aieneka balego bezala.»	66
<b>inude</b> haurtzaina, hazama	«— Hara, <b>inudeak</b> etxera dakar mutil etxekaltea!»	111
<b>iritzi</b> iruditu	«...bizpahiru pisu nahiko egokiak ikusi zituzten; hala ere, zeukaten tamainarako garesti <b>iritzi</b> zieten...»	27
<b>isioturik</b> pizturik	«Ikusi dut no-nola bi-biok irten zareten etxetik beheko su-sua <b>isioturik</b> utzita.»	43
<b>izu-laborri</b> izu handia, panikoa	« <b>Izu-laborria</b> sentitu dute, eta une batez irudikatu dute poliziak berriz atxilotuko lituzkeen unea: tiroak, txakurren haginkadak, kolpeak...»	17
<b>jagon</b> zaindu	«— Ordura arte, beraz. <b>Jagon</b> zaitetz, laguntxo.»	106
<b>jalgi</b> irten	«Txit ezaguna da inguru honetan, afera asko ditu hemengo jendeekin, bere egoitzatik usu <b>jalgitzen</b> ez bada ere.»	102
<b>jaramon</b> kasu	«Ez egin <b>jaramon</b> handirik Lukasi. Badakizu, urteekin batzuk arrarotu egiten dira.»	40
<b>jas</b> gorputz-itxura	«Ez zeukan, ba, porte txarra... bizarra pixka bat eginez gero... <b>jas</b> oneko mutila eta dena...»	32
<b>jaulki</b> egotzi, bota	«...bat-batean, haginik gabeko zulo hartatik garrasi latza <b>jaulki</b> zen.»	68
<b>jazartzaile</b> ihes doanari jarraitzen diona	«Handik ordu erdira-edo, egoera larriagotu egin zaie: <b>jazartzaileak</b> ia gainean dituzte...»	18
<b>kalapita</b> eztabaida zaratsua	«Euron atzetik, isilik baina beste bien <b>kalapitari</b> adi, erne, bizarduna zetorren.»	110
<b>kapar</b> parasito odol xurgatzailea	«— Bai, bizkarroien mendean, hain zuzen. Nik txikitan ez dut jakin zer diren zorriak, <b>kaparrak</b> edota ardiak...»	31
<b>karraju</b> pasilloa, pasabidea	«Egun batean mugimendua sumatzen da ziegetan: zaindaria taldeka dabilta <b>karrajuetatik</b> , sarrail-hotsa nonahi...»	15
<b>kirioak aidean</b> gutziz urduri	«Bihotzak kolkotik irten behar dit! <b>Kirioak aidean</b> nago!»	69
<b>kirrinkots</b> hotz ezatsegina	«Seguru asko egur zaharren <b>kirrinkotsa</b> izango zela pentsatu zuen.»	66
<b>kitzikagarri</b> estimulantea, jakin-min eragilea	«Zergatik ez dugu jarraitzen paseotxoarekin? Hori bezain <b>kitzikagarriak</b> badira inguru honetako etxe guztiak, ez gara aspertuko arratsaldeetan...»	33
<b>kitzikaturik</b> eszaturik, biztuta	«Fran ez tigan zegoen. Hain <b>kitzikaturik</b> sentitzen zen Gilenen alderdi iluna bertatik bertara jarraitu ahal izango zuela pentsaturik...»	108
<b>langa</b> zurezko atexka	«Bertako <b>langa</b> irekitzen ziharduela ezustekoa gertatu zitzaion.»	42
<b>lardaskatu</b> era nahasian ahoskatu	«Eta oihanak inguratutako sarrerarantz lerratu zen, zer edo zer ahopean <b>lardaskatzen</b> zuela...»	46
<b>laster egin</b> korrika egin	«Senak <b>laster egitera</b> bultzatu ditu azken segundua arte.»	18
<b>lerratu</b> jo, zuzendu	«Halako batean erabaki nuen, kopa ondo bete ondoren, erretzea bekatu ez zen bazter lasai batera <b>lerratzea</b> , berbotsetik eta astrapalattik urrun.»	8
<b>limurtu</b> irristatu	«Pittinka-pittinka jende-zirkuluen artetik <b>limurtu</b> eta mahirik mahai pasatzen hasi nintzen, kanapeak eta bestelako mokadu goxoak dastatuz...»	8
<b>lorratz</b> aztarna, arrastoa	«Hiriko irteerarantz jo zuen taxiak, eskualdeko barnealdera zihoan errepeidea hartzeko. Ez zien Franek <b>lorratza</b> galdu.»	111



<b>lotsortasun</b> lotsa, herabetasuna	«...ezezagunez inguratuta sentitu nintzen laster, dozenaka lagun berbaz eta barrez... eta ni, neure <b>lotsortasun</b> sendaezinean, irribarre zozo bat aurpegian.»	8
<b>lotu</b> gelditu	«Berrogei langile baino gehiago lan barik <b>lotu</b> ziren... eta pozik, bizirik irten zirenean.»	38
<b>luizi</b> lur-higidura	«...zutoin zaharra eraitsiz gero, <b>luizi</b> txiki bat sortu daiteke, jazartzaileei bidea moztu diezaiekeena.»	19
<b>mahuka</b> manga	«Alkandoraren <b>mahukaz</b> berehala tornikete bat egin arren, odola turrustan zerion...»	21
<b>mailadi</b> eskalierra	«Aurrean beti Julian zihoala, harrizko <b>mailadi</b> batetik gora egin zuten, harik eta kristaldun ate bat zeharkatuz gela handi batean sartu ziren arte.»	64
<b>maratz</b> lanean fin eta gogotsua	«Eta, ba, lanean aratza eta <b>maratza</b> bazen eta denak pozik bazituen ere, gau-irtenaldietan ospe txarra hedatzen hasi zen...»	119
<b>marro egin</b> huts egin	«— Ez dago arazorik. Lotan ere geldi zaitezke. Aizu, Fran, ez esan ezetzik, ezin didazu <b>marro egin!</b> »	82
<b>maskaldu</b> ahuldu	«Lehen bai, lehen hau, hori eta bestea egiten nituen, baina orain osasuna <b>maskalduta</b> daukat.»	10
<b>mehar</b> estua	«...igitaiaren kirtenez baliaturik estalkia altxatu eta eskailera <b>mehar</b> batean behera abiatu dira...»	18
<b>mirotsita</b> harridurak joa, mira eginda	«...barreari eman nion neuk ere, <b>mirotsita</b> gizonak (...) zelan jakin zuen niri ere hartara ziria sartzen...»	24
<b>mokadu</b> janari-puska	«Pittinka-pittinka jende-zirkuluen artetik limurtu eta mahirik mahai pasatzen hasi nintzen, kanapeak eta bestelako <b>mokadu</b> goxoak dastatuz...»	8
<b>muzin egin</b> errefusatu, baztertu	«— Urte askotarako —ihardetsi zidan, nire keinuari <b>muzin egin</b> eta, agur gisa, ezker eskua gorrazen hegaleran eramanda.»	9
<b>noraezean</b> nora gabe, helbururik gabe	«...gomendatzen dizut hemen lotara gelditzea, goian ohea eginda daukazu eta ez dira orduak hortik zehar <b>noraezean</b> ibiltzeko.»	124
<b>oilagor</b> hegazti mokoluzea	«...ondoren <b>oilagorra</b> Périgeux erara egina; bukatzeko, erbia saltsa eztiarekin. Den-dena, noski, ardo bikain jaki bakoitzari egokien zetorkionez lagundua.»	93
<b>okulu</b> txokoa, bazterra	«Oraindik bazeukan, beraz, <b>okulutxo</b> bat urdailean azkenburukoari bide emateko.»	94
<b>oldarrean</b> erasoan	«...baina, atzera begiratu eta han ikusi dituzte poliziak eta txakurrak <b>oldarrean</b> datozela.»	18
<b>ontsa</b> ondo, ongi	«— <b>Ontsa</b> da. Segi aitzina, otoi —bukatu zuen solasa Gilenek, ate nagusia erakutsiz.»	86
<b>orbain</b> ebakiondoa, arraiza	«...bekaina erdibitzeraino zeharkatzen zuen <b>orbain</b> sakona zuen, bestela zorrotzak baina ederrak ziratekeen hazpegien oreka erabat hausten zuena.»	85
<b>ostera</b> joan-etorria, bueltatxoa	«Arratsaldeetan, Arantxak lanetik heldu eta atsedean apur bat hartu ostean, elkarrekin <b>osteratxo</b> bat egiten zuten...»	29
<b>ostera</b> buelatatxoa, paseotxoa, hara-honakoa	«Atazak bazkalordurako amaituta, otordua Ezpelondon egin zuelarik, une hartan <b>ostera</b> labor bat egiten ziharduen...»	79
<b>otoi</b> mesedez, arren	«— Ontsa da. Segi aitzina, <b>otoi</b> —bukatu zuen solasa Gilenek, ate nagusia erakutsiz.»	86
<b>oturuntza</b> otordu handia	«— Eta kontaktu horiei eusteko zeuen etxean <b>oturuntzak</b> ematen dizkiezu.»	89
<b>parada</b> aukera	«...susmoa nuen kontu bitxi eta izugarri horietako bat entzuteko <b>parada</b> izan behar nuela laster.»	15
<b>pattar</b> likorea	«O-oso ondo. Ea zer d-daukadan. Nik ez dut e-daten, baina pa- <b>pattar</b> batzuk badaude hor gordeta a-auskalo noizdanik...»	72
<b>pertxenta</b> liraina, eder-ederra	«Bihurgune samur baten ondoren estratak gora egiten zuen eta handik aurrera jadanik ez zen etxe <b>pertxentarik</b> bide hegaletan ageri...»	80



<b>pieza</b> gela	«...komuna eta sarrera edo ezkaratz txikitik at, <b>pieza</b> handi batek hartzen zuen azalera ia guztia...»	87
<b>prezeski</b> hain zuzen	«Ez diot etxeagatik <b>prezeski</b> .»	103
<b>puntua jarri</b> hizpidea eman	«—Ez daukat asko pentsatu beharrik. <b>Puntua jarri</b> didazu —erantzun zidan lehor samar—.»	14
<b>sano</b> oso, guztiz	«—Istorio bitxia da gero! Ona, <b>sano</b> ona. Ia barregura eta dena ematen du...»	14
<b>saskel</b> zikina eta desordenatua	«Magal batetik estrata batera jaitsi dira eta horren hegalean, borda <b>saskel</b> batekin egin dute topo.»	17
<b>saskelkeria</b> zikinkeria, baldreskeria	«Baina zuk ez al dakizu bereizten xarma eta <b>saskelkeria</b> ? Hor bizi dena, inor bizi baldin bada, hauts artean dago...»	31
<b>sen</b> berezko joera	« <b>Senak</b> laster egitera bultzatu ditu azken segundua arte.»	18
<b>sokil</b> lur-zati trinkoa	«...teila asko pitzaturik zeuden eta zirrikietan haizeak ekarritako lur <b>sokiltxoetan</b> sustraiak eginak zituzten landare ugari...»	29
<b>suhartasun</b> berotasuna, sutsu egotea	«...eta agerikoa zen bazekiena nola baretu haren <b>suhartasuna</b> ...»	111
<b>sunda</b> usain sarkorra	«Lehenengo ke zuria... eta gero beltz-beltza, <b>sunda</b> itzela ematen zuena.»	38
<b>supazter</b> beheko suaren ingurua	«—Ongi etorri <b>supazter</b> goxo honetara, Fran, ongi etorri!»	87
<b>taxidermista</b> animalia-disekatzailea	«...honen izaera izutia, eskizoidea... <b>taxidermista</b> izatea baino ez zaio falta!»	57
<b>teila</b> teja	«...ostera <b>teila</b> pilo bat baino gehiago jasotzen baduzu, Soda-k eta biok larrua kenduko dizugu.»	111
<b>tipi-tapa</b> astiro-astiro	«Biharamun goizean, ohi zuen bezala, Julen goizetik jaiki zen, sua piztu eta, Arantxarekin gosalduek ondoren, <b>tipi-tapa</b> oinez abiatu zen lantokirantz.»	34
<b>tornikete</b> odoljarria gelditzeko tresna	«Alkandoraren <b>mahukaz</b> berehala tornikete bat egin arren, odola turrustan zerion...»	21
<b>trakeski</b> baldarki	«Ihesean jarraitu ahal izan zuenak, <b>trakeski</b> mutilaturik, gorriak pasatu zituen, noski.»	20
<b>trinkili-trankala</b> nekez eta zailtasunez ibili	«Beraz, hiri aldera jo dute, <b>trinkili-trankala</b> , errepide-estratak saihestuta, bidezidorretatik eta inoiz erreka-ibietatik ibiliz.»	17
<b>tronpatu</b> erratu, nahastu	«—Barka, zu... ez, ez. <b>Tronpatu</b> egin naiz, jauna, barka, beste norbait zinelakoan...»	80
<b>turrustan</b> txorrotada batean	«Alkandoraren <b>mahukaz</b> berehala tornikete bat egin arren, odola turrustan zerion...»	21
<b>txabusina</b> bata	«Barruko argi ilaun batek sortutako itzala bailitzan, Beñaten silueta azaldu zen, etxerako <b>txabusina</b> jantzita.»	114
<b>txirene</b> umoretsua, barregarria	«—Ha, ha, ha. <b>Txirene</b> etorri zara lagunartetik, gero!»	61
<b>txiri-txiri</b> astiro-astiro	«Gonbidatuen artean albo-albo bidea eginez, barruko mahai zamau zuri luzeetara iritsi eta ardoa <b>txiri-txiri</b> kopa barrura isurtzen nuen bitartean...»	14
<b>txirtxilatu</b> erabat desegin, zatitxotan hautsi	«...nor izango da [...] eskaileretatik gora igoko den Arbogast detektibea, hura bezala Norman eroaren labankadek <b>txirtxilatu</b> amaituko duena?»	57
<b>txitxildu</b> erdi itxi	«...esan zuen Julenek, begiak <b>txitxilduz</b> , irekita zeuden leihoetan zer edo zer antzeman nahian.»	30
<b>ukaldika</b> kolpeka	«...lagunaren aldarriari entzungor eginda, igotaiari gogor eutsita <b>ukaldika</b> ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari...»	20





<b>upeleko</b> ikaragarritzko	«Gilenek, deabruzko hazpegiak ageri-agerian, bere arerioari esku batarekin paparretik heldu eta bestearekin <b>upeleko</b> ukabilkada eman zion buruan...»	110
<b>urkulu</b> V formako makila	«Gurbitz asko egoten zen bertan eta guk egur hori, gurbitzarena, tiragomen <b>urkuluak</b> egiteko erabiltzen genuen.»	37
<b>urlia</b> izen zehaztu gabea	“Zu al zara <b>Urlia</b> Jauna? Pakete hau zuri emateko esan didate.”»	22
<b>usu</b> maiz, sarri	«Txit ezaguna da inguru honetan, afera asko ditu hemengo jendeekin, bere egoitzatik <b>usu</b> jalgitzen ez bada ere.»	102
<b>uzkurtu</b> txikiagotu, estutu	«...begiek ez zuten hil batenak ematen, zabal-zabalik zituen eta begi-niniak <b>uzkurtuz</b> zihoazen argia gerturatu ahala...»	68
<b>xuxurlatu</b> ahots isilez hitz egin	«—Belarriak zabal-zabalik dauzkate... —esan bainoago, <b>xuxurlatu</b> egin zuen.»	11
<b>zamau</b> mahai-zapia, mantela	«Gonbidatuen artean alboz-albo bidea eginez, barruko mahai <b>zamau</b> zuri luzeetara iritsi eta ardoa txiri-txiri kopa barrura isurtzen nuen bitartean...»	14
<b>zaratotsean</b> zarata ateraz	«Eskaileran behera norbaitzuk zetozen <b>zaratotsean</b> , bultzaka, berba ulergaitzak trakeski oihukatuz.»	109
<b>zarrastatu</b> urratu	«...ukaldika ekin dio bere eskumuturra ebakitzeari, jo-ta beso zati <b>zarrastatu</b> eta odoltsu bat eskuburdinatik dindiliz utzi arte...»	20
<b>zedarritu</b> mugatu	«Han ageri zen berriz ere andre xahar baten gerritik gorako silueta, leihoak <b>zedarrituriko</b> argi-itzaletan soslai.»	53
<b>ziega</b> lurpeko kartzela	«Egun batean mugimendua sumatzen da <b>ziegetan</b> : zaindaria taldeka dabilta karrajuetatik, sarrail-hotsa nonahi...»	15
<b>zinez</b> bene-benetan	«...bai, badakit kontu bat nire lagun baten ezagun bati gertatua, <b>zinez</b> latza.»	11
<b>zipitzik ere</b> batere, ezertxo ere	«Egoera edo baldintza normaletan agian Gilenek susma zezakeen nor nintzen, baina gauerditik aurrera <b>zipitzik ere</b> gogoratzeko gai ez da izaten.»	122
<b>zirriparra</b> istilua, nahaste-borrastea	«Behin kalean egonda, <b>zirriparra</b> eta haserre-giroa gora eta gora joan ziren...»	110
<b>zirto</b> zirikada	«—Tira, tira, Beñat, ulertu didazu. Horrelako <b>zirtoak</b> harrapatzen iaioa izan zara beti!»	98
<b>zozo</b> tontoa, ergela	«Zer? —galdetu nuen, irribarre <b>zozoa</b> aurpegian nuela.»	24
<b>zurtuta</b> harrituta	«Aparatu guztiak itzali, diskoa gorde eta, oraindik <b>zurtuta</b> , logelarantz jo zuen.»	57
<b>zurztasun</b> harridura	«...zer ote dago Gilenen iraganaren gaiaz mintzatzen natzaionean ezkuta ezin ditzakeen aldarte aldaketa eta <b>zurztasun</b> horien ostean?»	100